

B

BARREN

“Elgoibarko ikasleak behar ditu IMHk”

Santi Sastre

TOKIKOM





SUMMER

Uda



Kensington Elgoibar
C/ San Ignacio 4
Telf. 943 74 02 36
idiomas@kensington-sles

IKASFUN

- ➔ Data: 2010-07-01etik 2010-07-30era
- ➔ Egunak: Astelehenetik ostiralera
- ➔ Iraupena: 66 ordu
- ➔ Hizkuntza: Ingelesa
- ➔ Adina: 1998-2006 bitartean jaloak
- ➔ Ekintzak: hiru orduko aisialdia
Ingelesezt, jokoak, Irteerak,
kirolak, multimediarekin
Jarduerak ...
- ➔ Talde murriztuak
- ➔ Prezioa: Egunean 3 ordu - 200 €
Egunean 2 ordu - 175 €
Egunean ordu bat - 100 €

IKASTARO TRINKOAK

- ➔ Data: 2010-07-01etik 2010-07-30era
- ➔ Egunak: Astelehenetik ostiralera
- ➔ Iraupena: 38 ordu
- ➔ Hizkuntza: Ingelesa
- ➔ Goi mailako moduluak
- ➔ Talde murriztuak
- ➔ Prezioa: Egunean 2 ordu - 303 €
Egunean 3 ordu - 440 €
Egunean ordu bat - 200 €

UDAKO IKASTAROAK

- Egunean 2 eta 3 ordu
- Mailak
- Astekako izenemateak
- Kurso modularrak 1-2-1
- Gutxienez 10 ordu
- Matrikula ordaindu beharrik gabe



SAN PEDRO

J A T E T X E A

jaixak ondo pasau!

Aurrez enkargatuz gero hobel!

SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR



Utzi kukukeriak!

Udaberria iritsi da, eta harekin batera, natura bizitzaz gainezka ageri zaigu. Zuhaitzak eta lorak borborka, animaliak umeak edukitzen, baratzeak itxura hartzen... Era batera edo bestera denok nabari dugu bizipoz berriztu hori.

Udaberriarekin batera, beharbada, txori ezagunenaren kantua ere hasiko gara entzuten, kukuarena alegia. Ez dakigu zergaitik, baina kukua diruarekin erlazionatzen da. Badago poltsikoa diruz bete eta mendira joaten denik ere, urte osorako diruz ondo ibiltzeko aitzakian.

Horrez gain, kukuak ere badu beste berezitasun bat: bere ondorengoaren ardura beste hegazti batzuei uzten die. Gaur egun oraindik zergaitia ez dago hain argi, baina baliteke ezezagun horrek bere ondorengoak berak baino hobeto zainduko dituela pentsatzea, edo besterik gabe, bere ondorengoenganako interes eza izan daiteke arrazoia.

Okila ere txori ezaguna da, agian marrazki bizidun batzuei esker. Txori horren berezitasuna bere moko gogorrean dago.

Badago hegazti berezi hau entzuteko gogoz mendira joaten denik ere, baina horiek mendiaz, naturaz, gozatzea dute helburu, diruarekin mendian alperrik gabiltza eta.

Gure ustez, lurra ez da gure gurasoek utzitako ondare bat, gure ondorengoentzako mailegu bat baizik. Horregatik, kukukeriak kukuei utzi, diru kontuetaz ahaztu eta ondorengoetan pentsatuz naturaren alde apustu egitea eskatzen diegu Udaleko agintarieri, okil beltzak ez dezan adreilua zulatu beharrik izan.



Arkaitz Irureta

**“Gure ustez, lurra ez da gure gurasoek utzitako ondare bat,
gure ondorengoentzako mailegu bat baizik”**

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

NAHASTE BORRASTEKO IRUDIAK JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN!



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

SANTI SASTRE

IRAKASLEA



“IMHk profesionalagoa sentitzeko aukera eman dit”

IMH sariak banatu zituzten joan zen astean, eta, Santi Sastre omentzeko baliatu zuten ekitaldia. Ikastetxea sortu zenetik jardun du diseinu irakasle lanetan, eta hilabete honetan hartuko du erretiroa, 63 urterekin. IMHk eskerrak eman dizkio elgoibartarrari urteotan egindako lanagatik, eta bere lanean eredu izan dela aipatu zuen Josean Egaña IMHko zuzendariak. David Urzainki Lanbide Heziketako sailburuordeak urrezko intsignia jarri zion. Santi Sastrek ere eskerrak eman dizkio ikastetxeari, eta IMHn lan egitea “sari bat” izan dela adierazi du. Jubilatuko egingo da, baina ez da erretiratuko, eta aurrerantzean ere IMHra joateko asmoa dauka lantxo txiki batzuk egitera.

Iritsi zaizu erretiroa hartzeko unea, eta IMHK omenaldia egin dizu. Zer sentitu zenuen urrezko intsignia jarri zizuten unean?

Ez nuen horrelakorik espero, eta izugarri emozionatu nintzen. Ni baino gehiago merezi duen jende asko dago. Nik gustuko lana izan dut, eta gozamina izan da niretzat irakasle izatea. Jende asko dago lan gogorra- goak dituen eta horiek daukate, nire ustez, benetako meritua. IMHri eskerrak eman nahi dizkiot bere garaian eman zidan aukeragatik. Oso lankide onak izan ditut, eta hemen lan egitea izugarria izan da niretzat. Pribilegiatu bat naizela uste dut.

63 urterekin jubilatu zara. Uste zenuena baino azkarrago iritsi zaizu jubilazioa?

Ba bai. Irakasle izatea gustuko dut, eta niretzako ez da lana izan. Sekulako zortea izan dut. Niretzako sari bat izan da irakasle izatea, eta lanera oso pozik joan izan naiz. Egia esateko, ez neukan oraindik erretiroa hartzeko asmorik. Irakaskuntzan lanpostu berriak sortzeko hitzarmena dago, eta nahi izanez gero, irakasleok 60 urterekin jubilatzeko aukera daukagu, baina nire nahia 65 urtera arte lanean segitzea zen. Azkenaldian, baina, gauzak asko aldatu dira, eta ikasketa plan berriak jarriko dituzte martxan. Azkenean, nire lanpostua beste bati lagatzea erabaki dut.

Jubilatzeko adina 70 urtera atzeratu nahi du-te. Zer irizten diozu?

Erretiroa hartzeko dagoen sistema ez da oso bidezkoa. Pertsona bakoitzak kotizatu dituen urteak hartu beharko lirateke kontuan. Azken batean, lan egiten dugun urteetan kutxa komun batera botatzen dugu dirua, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Denek izan behar dute jubilaziorako eskubidea, baina urte gehiago lan egin duena saritu behar dela iruditzen zait. Kotizazio urteak eta adina kontuan izan beharko lirateke erretiroa hartzeko orduan. Bestalde, lanbidearen arabera ere moldatu daiteke jubilatzeko adina: irakaskuntzan, osasunez ondo egonez gero, luzatu daiteke erretiroa hartzeko adina, eta nahi duenari aukera eman behar zaiola uste dut, baina arrantzaleak edo meatzariak, esate baterako, lehenago jubilatu behar dira.

Nola iritsi zinen irakaskuntza mundura?

30 urterekin sartu nintzen irakaskuntzan, eta kasualitatez izan zen. Egia esan behar badut sekula ez zitzaidan bururatu irakasle izatea. Nik tailerrean egiten nuen lan. Ikasketak amaitu, eta 14 urterekin hasi nintzen lanean,

Soraluzen. Bi urte geroago Elgoibarrera etorri ginen bizitzera, eta Jarbe enpresan hasi nintzen lanean. Tailerrean nenbela postuz igotzea zen nire helburua, eta horretarako aukera bakarra ikastea zen. Gaueko eskolan eman nuen izena, eta Mekanikan ofizialia egin nuen. Hura bukatu ostean Eibarko Armagintza Eskolan jarraitu nituen ikasketak, eta Maestria egin nuen han. 19 urterekin bukatu nuen, eta ondoren, Ingeniaritza Teknikoa ikasi nuen nire kontura. Ez neukan eskolara joateko aukerarik, lan egin behar nuelako, eta azterketetara bakarrik joaten nintzen. Horri esker, bulego teknikoan hasi nintzen lanean, eta irakaskuntzaren munduko deia iritsi zitzaidan.

“Gauzak hobeto egitera derrigortzen gaitu krisiak”

Erraz hartu zenuen erabakia?

Ez. Garai hartan irakasle gutxi zegoen, oso gaizki ordaintzen zutelako irakaskuntzan. Jose Mari Bastida Mekanikako irakasleak deitu zidan, irakasleak behar zirela esanez, eta ea gaez eskola batzuk emango nituen galdetu zidan. Nik oso irakasle onak izan nituen, arrastoa lagatzen duten horietakoak: Jose Elgoro, Alberto Ortueta San Millan... Nik ere zerbait egin nezakeela pentsatu nuen, eta baitza eman nuen. Lanetik irten eta Mekanikara joaten nintzen eskolak ematera. Ordu hartan ikasteko zailtasunak zeuden, eta ikastera etortzen zen jendea benetan nahi zuelako etortzen zen. Ez zegoen langabeziarik, eta jendea oso gazte hasten zen lanean. Hortaz, irakasle ilusioz beterik etortzen ziren eskolara, eta neure burua ikusten nuen ikasle haien lekuan. Laguntzeko asmoz sartu nintzen irakaskuntzan, baina benetan gustatu zitzaidan. Oposaketak egin nituen, eta marrazketa irakasle izateko plaza atera nuen, tailerra lagatzea erabaki nuen. 32 urte inguru egin ditut irakaskuntzan, eta ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Urtebeteko praktikak egin nituen Azkotiko Eskola Profesionalean, eta gero Elgoibarko Mekanikara

etorri nintzen. IMH sortu zenean hasi nintzen hemen, eta hementxe jubilatu naiz.

Zer izan da IMHK eman dizun onena?

IMHK profesionalago sentitzeko aukera eman dit. IMHko ikasleak helduagoak dira, eta ez da gauza bera gazteei irakastea. Hemen go ikasleek 18 urte izaten dituzte gutxienez, eta beste lan bat eskatzen du horrek. Nik enpresa mundua ere ezagutzen dut, eta IMHn egin ditudan hemeretzi ikasturteotan ekarpen interesgarriak egin ditudala uste dut.

Nola gogoratzen duzu IMHren sorrera?

Garai hartan ikasle behar handia zegoen, eta Elgoibar ezin da ulertu erreminta makinarekin loturiko zentrorik gabe. Ikastetxeko zuzendaritza herriko eta inguruetatik enprekin jarri zen harremanetan, eta haiek ere lagundu zuten ikastetxearen sorreran. Elgoibarren eta inguru honetan industriak, eta bereziki, erreminta makinak ematen digu jaten, eta enpresek ondo prestatutako langile profesionalak behar dituzte. IMHn oso prestakuntza ona ematen da, baina ez daukagu Elgoibarko ikasleekin, baina ez dute industria mundura etorri nahi. Hemendik esan nahi diet enpresaren sektorea oso interesgarria dela. Industria gaur egun ez da lehengoa. Ez da zikina, ez da astuna eta edonork egin dezake lan tailerrean. Ez da indar fisiko handirik behar, eta emakumeak zein gizonezkoak sartu daitezke gaur egun tailerrean, makinak ordenagailuz kontrolatzen direlako. Kontrol numerikoa oso polita da, motibagarria eta jendea animatu nahi dut mundu honetara etortzera. Jende ona behar dute enpresek, langile kualifikatuak; horrek emango dio indarra industriari. Tailerrean lan mota asko daude, eta edonork egin dezake lan, ondo formatuta egonez gero, behintzat. Nik Jarben lan egiten nuenean karro batzuk altxatzeko sekulako indarra behar izaten zen, eta baserritarrek egiten zuten lan hori. Denborarekin hori dena aldatu egin da, eta lanbideak berdintzen hasi dira. Gaur egun ez dira hainbeste bereizten emakumeen eta gizonen lanbideak. Lehengo egunean Azkoitia joan nintzen, eta bidegurutze batean sekulako autobus handia geratu zen, niri pasatzen uzteko, eta emakume bat zen gidaria. Lehen ez zen horrelakorik ikusten, baina gauzak aldatzen ari dira. Enpresaren mundua ezagutzera gonbidatu nahi dut jendea, lanerako aukera handia ematen duelako.

Krisi egoera honetan nola animatuko zenuke jendea industria mundura?

Industria ziklikoa da, eta beti izan ditu krisiak. Krisiak gauza berriak egitera behartzen zaitu, eta krisiak berak profesionaltasun handiagoa eskatzen du. Gauzak ondo egin behar dira beti, baina krisiak hobeto egitera derrigor-tzen gaitu. Une hauetan jendeari profesiona-la izateko eskatu nahi diot. Kalitateaz baino gehiago, profesionaltasunaz hitz egitea gus-tatzen zait. Gauzak ondo egin behar dira, norbera ondo sentitzeko. Obligazioz baino gehiago, norbere buruarekiko satisfazioa sentitzeko izan behar da, profesionala.

Ikasketak eta lana bateratzeko aukera ematen du IMHk. Enpresak langileak kaleratzen ari diren garaiotan, posible da enpresetan praktikak egitea?

Zaila da, eta une honetan “Ikasi eta lan” egi-tasmoa bertan behera geratu da. IMHk au-rerra jarraitzea nahi zuen, baina enpresetan une larriak bizi dituzte. Norberaren lanpostua edo soldata kolokan ikusten dute langile askok praktiketako ikasleekin, eta momentuz eten egin da lankidetzeta hori. IMH berritzailea izan zen alor horretan, eta egitasmoa oso ona da. Enpresariari etorkizuneko langileak ezagutzeko aukera ematen dio, eta ikasleek eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera

dute. Lehen ikastetxea eta enpresa oso urrun zeuden, eta honelako egitasmoei esker gertuago daude gaur egun. Enpresariarentzat eta ikasleentzat baliagarria da egitasmo hori.

Adituek diote ikasteko momentu egokia dela hau. Zer uste duzu?

Bai, ados nago. Gaur egun ikastea ezinbes-tekoa da, eta uneoro birziklatu behar zara, bestela atzean gelditzen zara. Ikasteko seku-la ez da berandu, eta edozein adinetan inte-resgarria da gauza berriak ikastea. Alor guz-tietan irteten dira gauza berriak, eta ezinbes-tekoa da jakintzak eguneratzea. Medikun-tzan, erremintan makinan edota informatikan etengabe agertzen dira gauza berriak, eta alor horretako profesionalak hori guztia ikasi behar dute.

IMHk eta enpresek hartueman estua dute. Ikusten duzue krisiaren amaierarik?

Ez da amaierarik ikusten. Enpresa batzuetan badirudi hasi dela zeozer mugitzen, baina beste askok ez daukate lanik. Krisi hau, bai-na, ez da ohikoa eta industrian ez ezik, bes-te alor guztietan ere eragin du. Ez dakigu nondik etor daitekeen suspertzea. Guk IMHn ikasleak prestatzen segituko dugu, hori dela-ko gure egitekoa. Merkatuaren beharren ara-bera bideratuko ditugu ikasleak, baina he-mendik ezin dugu krisirik konpondu.

Orain dela hogeit urte IMHn lanean hasi zi-nenean, nola ikusten zenuen etorkizuna?

Oso itxaropentsu nengoen. Eraikin berria geneukan, eta gure ikasleek etorkizun opa-roa izango zutela ikusten nuen. Hogeit urte pasatu dira, eta bide horretatik goazela us-te dut. Ikastaro kopurua asko handitu da, eta gainera, ikasketak amaitu ondoren, ikasle gehienek lana aurkitzen dute. Aurten ere, egoera hain gaizki egon arren, diseinu alorrean pare bat ikasle bakarrik geratu dira langabezia. Gainerakoek lana aurkitu dute, edo bestela, Ingeniaritza ikasketak egiten jarraituko dute. Berriz esango dut: Elgoibar-ko ikaslerik ez edukitzeak ematen dit pena gehien. Nire ikasle ohiak enpresetan oso gustura daudela ikusten dut, eta horrek se-kulako poza ematen dit. Feria batera joan eta kargu garrantzitsuak dituzten ikasle ohiekin egin izan dut topo, eta hori pozga-rria da.

Jubilatu ondoren, zer egingo duzu?

Ez daukat geldirik egoteko asmorik. Hasie-ran IMHra etortzen jarraituko dut lantxo txi-ki batzuk egitera. Zuzendariarekin hitz egin dut, eta badauzkat zeregin batzuk. Ez dau-kat aspertzeko asmorik.

Ainhoa Andonegi

IMH SARIAK 2010



Aurtengo saridunak, antolatzaileekin.

Ekintzailetasuna eta nazioartean egindako lana goraiatu dituzte aurten IMH sarietan. Ekitaldian Alfredo Etxeberria Elgoibarko alka-tea, David Urzainqui Lanbide Heziketako sailburuordea, Koldo Arandia AFMko presidentea, Xabier Ortueta AFMko zuzendari eta IMHko presidentea eta Joxean Egaña, IMHko zuzendaria izan zi-ren. Hauek izan dira aurten saritu dituztenak:

► **Saritutako ikasle ohia:** Ibai Zubikarai (Itziar, 1983). Proiektu Me-

kanikoen Garapeneko Goi-Mailako zikloa ikasi zuen IMHn 2001-2002 urteetan, eta azken urtean Norma enpresan egin zituen prak-tikak, produkzio eta kalitate departamentuan. Praktikak amaitu on-doren, 2003an, IMHren jarraitu zuen Txandakako Ingeniaritza Ikas-ten, eta Zumaiko Korta Group enpresan lanean hasi zen produkzio sailean. Ibairen helburu garrantzitsuenetako bat Korta Zumaiaiko lan jarrera eta metodoak Indiako plantan ezartzea da, enpresa ma-triza eta Indiaren arteko komunikazioa ahalik eta errazena egiteko.

► **2010eko ikasle aipagarriena:** Irene Ramos Cubillo (Ermua, 1974), Ikasi eta lan produkzio bidezko mekanizazioaren goi-maila-ko heziketa zikloko ikaslea da, eta Abadiñoko Industrias LAIPen dihardu lanean.

► **Fabrikazio arloko ikasle aipagarrienaren saria:** Pedro Marcos (Arrasate, 1970). Proiektu Mekanikoen Garapeneko goi-mailako heziketa zikloko ikaslea da. Elgoibarko Etxe-Tar enpresan egin di-tu praktikak, eta momentuz bertan jarraituko du lanean.

► **Elgoibarko ikasle aipagarrienaren saria:** Eduardo Etxeberria (1982). Proiektu Mekanikoen Garapenerako ikasle honek Udalak emandako plaka bat jaso zuen Elgoibarko alkatearen eskutik, eta IMHk 2010 urtean zehar IMHk *elearning* ikastaroak doan egiteko aukera eskainiko dio.

Dena
astroago
doan garaian




Gipuzkoa, bizkor

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihebidetako "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihebidetako igarotze beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.





BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ikastolaren Eguna

Ikastolaren Egunaren antolatzaileen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu pasa den larunbata, hilaren 19a, egun berezia eta arrakastatsua izan zedin lagundu zuten guztiei. Hau da: Belaustegi Jatetxea, Joseba Etxeberria, Markel Bergara, Unai Arrieta, Gorka Garate, Pelegrin-Exklusivas Gorla, Goki Erreformak, Kutxa, Muruamendiarrak, Alzolako Urak, Euskadiko Kutxa, La Caixa, Dori Urdaitegi-Janaridenda, Banco Guipuzcoano, Rural Kutxa, Bacalaos Alkorta, Txariduna, Jai-Alai, Berrain Logistika, Bankoa, Caixa Catalunya, Juli Arregi, Armueta, Netto, Idarraga Kafeak eta Nava Inprimategia.

Eskerrik beroenak ere, parte hartu zenuten guztioi.

Datorren urtean ere, festa berezi hau antolatzen laguntzeko eta elkar aritzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Ikastolaren Egunaren antolatzaileak ☺

Ekainak 29an, greba orokorra

Euskal gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU) greba eguna antolatu du datorren ekainaren 29rako, Hego Euskal Herri osoan. Ondorengo lerroen bidez deialdi horren arrazoiak nahi dizkizuegu laburki azaldu.

Orain dela urtebete, maiatzaren 21eko greba orokorraren testuinguruan, aurreratu genuen politika sozioekonomikoetan eragiten dituzten erabakien norabidea aldatu ezean, gutxi batzuen diruzalekeria larraz indurduko genuela

jendartearen gehiengoak. Milaka herritarrek egin zuten bat gure egun hartako mezuarekin, eta baita ondoren plazaratu genuen proposamenarekin ere: 132.000 sinadurek babestu zuten hamar neurrik laburbiltzen duten alternatiba; alternatiba beharrezkoa bezain egingarria.

Zinez garai zailak dira herritar xumeontzat. Langileok, pentsiodunak, merkataritza txikiko autonomoak... bizimodu geure lanaren esfortzuari zor diogunok, jendartearen gehiengo osatzen dugunok, egoera larria bizi dugu: milaka langilek lanpostua galdu dute; pentsiodunei eta langile askori soldata jaitsiko zaien bitartean, argia eta BEZa igoko dituzte, beraiek sortu zuten krisia gainditzeko hartzen dituzten neurriek zuzenean herritarren eros ahalmenari eragiten diote, eta ondorioz, oinarrizko kontsumoari. Ase ezinak dira, eta mota bereko neurri gehiago hartzea doaz: orain, erreforma laborala dator, langabeen kopurua hazi eta soldata jaitea erraztuko dituen. Guretzat eta zuretzat ez dago laguntza planik.

Euren asmoak geldiarazten ez baditugu egoerak larriagoa egingo du. Horregatik, grebarekin bat egitera gonbidatzen zaitugu, eta ekainaren 29an kalera irteteko eskatzen dizugu. 11:15ean Donostiako Antiguoa auzoko Super Amara ondotik abiatuko den manifestazioan parte hartuz (12:00etan Bulebarrera iritsiko da) edoeta 18:30ean Eibarko Untzaga plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartuz.

Elgoibarko LAB ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 · 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:






Ane
Odria

Aupa, Maialen!
Konturatu ere egin
gabe amaitu zaigu ikastur-
tea. Amaitu dira azterketak, liburu-
tegiko ordu luzeak, apunte arteko goiz eta

arratsalde astunak (batzuentzat baita gauak ere)... Azkar, batzuen-
tzat; astiroago, besteentzat, baina amaitu da aurtengoa ere! Gure Zozoak
Beleari atala ere hemen amaituko da. Orain hurrengoei tokatzen zaie, Joa-
nesi eta Maialeni. Seguru gu baino ideia freskoagoekin etorriko direla. Ho-
relakoetan aldaketa beti etortzen da ondo, haize berriak, gai berriak...

“Gure Zozoak Beleari atala hemen amaituko da. Orain, Joanesi eta Maialeni tokatzen zaie”

Haize berriak direla eta, ez nuke azken elkarrizketa hau nobedade txiki
baten berri eman gabe amaitzerik nahi. Ez dakit jakin duzun, baina Elgoibar-
ren gazte mugimendua bateratuko duen topagune bat sortu dugu: HA-
RRO2. Ekin diogu heritartzeari, eta aurkezpen egunak izandako harrera
izugarria izan zen: 150 gazte Madalan, elkarrekin afaltzen. Hasiera ezin-
bea, beraz. Aurtengo jaietako gazte eguna antolatzeko ere, bihar goizerako
asanblada ireki bat antolatzeari proposatu da, denon artean antolatzeko de-
nontzat izango dena. Zer iruditzen zaizu? Ni behintzat hantxe izango naiz
11:00etan, eta zenbat eta jende gehiago hurbildu, orduan eta ideia gehia-
go, orduan eta gureago sentituko dugu guretzako antolatuko dena. Azken
finean, ez al duzu uste herriarentzat diren jaiak herritik sortu behar direla?
Mendaroko gazteek parte hartzen al duzue jaietako antolaketan? Ba al dau-
kazue herriko gazteak batuko dituen bilgunerik? Kontaidazu, Maialen, as-
paldi ez dut eta Mendaroko berriak izan.



Maialen
Olazabal

Epa, Ane!

Zure hitzetan opor usaina nabari da, baina
nireetan eta beste askorenetan oraindik azterke-
tak eta apunteak dabilta. Luzeegia egiten ari zait
aurtengoa, eta ea nik ere noiz esaten dudana: amai-
tu da aurtengoa ere! Laster, laster...

HARRO2ren inguruan ere izan dut bai berriak. Ikusi di-
tut Madalako argazki batzuk, eta badakit jendea gogoz eta ilusioz
dagoela. Ia ba elkarlanean Elgoibarko gazte jendea biltzen duzuen.
Mendaron ere gazteak ari dira lanean. Horren adibide dira: Trinitate
egunean antolatutako iluntzeko festa, Aingeru Guardako jaiak, Gaz-
tetxeak antolatutako sagardotegiko irteera, trikiritxa ikastaroa, pala
lehiaketa... Eta Santa Ana jaiak? Aurreko urtean, gazteen eguna
koadrila arteko lehiaketa antzera antolatu zuten, eta jendeak gogo-
tsu parte hartu zuen ekintzetan. Eta nola utziko dugu aipatu gabe
Santa Ana egunak gazteen artean hartu duen indarra? Garai bate-
an gehienak lo geratzen ziren, eta orain denok biltzen gara bertso-
larien poteoan, eta nola ez, *Leo*-nean, bazkaltzeko. Baina hala ere,
badago zer eginik.

“Plazer bat izan da zurekin atal hau konpartitzea, Ane”

Eta bukatzeko, despedida. Urruzunoren luma atalean hasi zen
gure BARRENEKO ibilbidea, eta Zozoak Beleari honetan, amaitu. Pla-
zer bat izan da zurekin atal hau konpartitzea, Ane. Eta hemendik
jendea idaztera animatzen dut, idaztera eta, gainera, euskaraz egi-
tera. Hitzak idatzi ezeari haizeak errotan ditu, baina paper gainean
betirako geratzen dira. Gure atala irakurri duzuenoi, eskerrik asko,
eta gozatu baduzue, askoz hobeto.



Elgoibarko Udala



Herriko ostalaritza sustatzeko pintxo lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak.

Zelako pintxoak gustatzen zaizkizu?



Aitor Eizagirre
44 urte, tailerreko langilea

Niri denak! Egia da, baina, betiko pintxoetara jotzen dudala gehiago. Hala ere, probatuko ditut lehiaketako pintxoak. Niri gustatzen zaizkit horrelako ekitaldiak, baina ez dakit zergatik jarri duten lehiaketa ostegun eta ostiralean. Nik uste dut zapatuan hobe izango litzatekeela.



Ricardo Torquemada
62 urte, txapista

Betikoak batez ere, baina gauza berriak probatzea ere gustatzen zait. Bakarra jatekotan patata tortilla aukeratuko nuke, beti ona egoten delako. Iaz ere ibili nintzen lehiaketako pintxoak probatzen, eta aurten ere irtengo naiz. Belaustegi-ko afaria tokatzen bazait, primeran!



Charo Bragado
52 urte, kosmetiko aholkularia

Pintxo bereziak probatzea gustatzen zait. Lehiaketako pintxoei begira jardun dut, eta oso itxura ona dute. Ez dakit lehiaketa orduan hemen izango ote naizen, baina ahaleginduko naiz iristen. Iaz oso giro ona egon zen, baina pintxoak berehala amaitu ziren.



Lucia Marin
49 urte, Correoseko langilea

Gehiago gustatzen zaizkit pintxo berriak. Azken batean, patata tortilla etxean ere jan daiteke, eta tabernan nahiago dut gauza berriak probatzea. Pintxo lehiaketak antolatzea ondo dago, jendea kalera irteteko eta ostalaritza sustatzeko. Horrelako gehiago egin behar dira.

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilon, 2 - 3. soltoa 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanto eta barmeko estaldura
Zolak ezartzea
Lantutako egur, aluminio, PVC
Pintura orokorra
San Roke, 7 beheko
Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670



URBERU SAGARDOTEGIA

Haragia eta arraina parrillan: berezitasuna
Astebukaeran zabalik

Elorriaga auzoa - ITZIAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 19 92 37



Birziklatzeko edukiontziak kendu dituzte Merkatu Plaza azpian: “Kultur Etxeko igogailua egiteko obrak hasi dituzte, eta, ondorioz, zaborra birziklatzeko edukiontziak kendu egin dituzte. Orain jende askok zabor mota guztia botatzen du edukiontzi berean, eta ez dute ezer birziklatzen. Elgoibar Berdea egitasmoaren baitan ingurumena zaintzeko helburua dago jasota, baina horretarako erraztasunak eman behar zaizkie herritarrei”.



Herri Eskolara bidean zuhaitz handi bat dago: “Urasanditik Herri Eskolara joateko bidean zuhaitz handi bat dago, eta arriskutsua dela iruditzen zaigu. Betidanik ezagutu dugu zuhaitz hori leku horretan, baina azken urteotan sekulako tamaina hartu du, eta lurra mugitzeko arriskua dagoela iruditzen zaigu. Ume asko ibiltzen dira inguru horretan, eta ezer gertatu aurretik neurriak hartu behar direla iruditzen zaigu. Ez dut uste zuhaitza erabat kendu behar denik, baina kimatu egin beharko litzateke”.

Eguren orkestrak Plaza Handian ematen zituen kontzertuak kendu dituzte: “Aurreko urteetan Eguren orkestraren emanaldiak antolatu izan ditu Udalak. Domeketan izaten ziren kontzertuak Plaza Handian, eta oso giro ona egoten zen. Aurten ez dute horrelakorik antolatu, eta zaleok Eguren orkestraren falta igartzen dugu. Eskertuko genuke emanaldi horiek beriz antolatzea”.



CD Elgoibarko nesken taldeak gurasoen kontrako partida jokatu du:

“Denboraldiari amaiera emateko CD Elgoibarko neskek gurasoen kontrako partida jokatu genuen Mintxetan, eta sekulako giroa sortu zen. Ahalegin betean jardun genuen guztiok, baina azkenean, gurasoek irabazi zuten 5-3. Gauean elkarrekin afaldu genuen, eta oso ondo pasatu genuen eguna”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943 744 112



ESKERTZA

JOSE AZKOITIA IRIONDO

2010eko ekainaren 23an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Atzo arratsaldean hasi zen Elgoibarko Pintxo Lehiaketa, eta gaur 22:00ak arte egongo da pintxoak dastatzeko aukera

Elgoibarko hamabi tabernak parte hartu dute lehiaketan

Gaur da Pintxo Lehiaketako egun handia. Atzo hasi zen, berez, baina, barixakua izanda, jende gehiago espero dute gaur antolatzaileek. Aurten, Elgoibarko hamabi tabernak parte hartuko dute, iaz baino bi gehiagok: Txarriduna, Iriondo, Gabi, King-kong, El Gautxo, Gorbea, Madigan's, Iturri, Salento, Ametsa, Lanbroa eta Lojantzi, eta bakoitzak bere pintxo aurkeztu du lehiaketara. Bigarren aldia da Pintxo Lehiaketa antolatzen dutela, eta iaz bezala, euro batean salduko dituzte pintxoak. Bi sari izango dira: Pintxo Onenaren Saria eta Herritarren Saria. Herriko hiru edo lau gastronomia elkartetako kideek eta Josu Mugertza Belaustegi jatetxeko sukaldariak osatzen dute aurtengo epaimahaia, eta haiek erabakiko dute zein den aurtengo pintxorik onena. Hala ere, herritarrek ere izango dute hitza. Pintxoak dastatzen dituztenek bozkatzeko aukera izango dute, eta boto gehien lortzen dituenak jaso-



Udaletxean egin zuten lehiaketaren aurkezpena.

ko du bigarren sari hori. Bozketan parte hartzen dutenen artean, Belaustegi jatetxeko dastatze menua zozketatuko dute bi lagunentzat. 11:30etan hasiko dira gaur pintxoak zerbitzatzeko, eta 22:00etan amaituko da.

Estimazio handiko lehiaketa

Iaz estimazio handia izan zuen pintxo lehiaketak, eta Paulaner Txarridunaren *Tinbalak* jaso zuen pintxo onenaren saria. Herritarren gustukuena, berriz, Gabi jatetxeak aurkeztu zuen *Ikurriña* pintxo izan zen. 2.134 lagunek parte hartu zuten guztira bozketan. Iaz, sekulako jende uholdea izan zen pintxoak dastatzen, eta antolatzaileek eurek uste baino azkarrago amaitu ziren mokadutxoak. Nahaste Borraste proba egun berean izateak zerikusi handia izan zuen horretan, jende asko pilatu zelako Plaza Handian. Aurten ere, Pintxo Lehiaketako egun handia eta Kimetz elkarteak antolatutako Nahaste Borraste proba egun berean izango dira, gaur.



Gabi eta Txarriduna jatetxeetako sukaldariak, iaz.

Presoei elkartasuna adierazi zioten zapatuan Ermuaran-Sallobenten



Presoei eta haien senideei babes adierazteko elkartasun erromeria egin zuten zapatuan Ermuaran-Sallobenten, Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta. Trikiti doinuak, bertsoak, herri-kirolak, bolo jokoa... egitarau zabala antolatu zuten, eta gogotik gozatu zuten hurbildu zirenek. Goiz partean eguraldia lagun izan bazuten ere, zelaian beharrean elizako arkupeetan elkartu ziren azkenean bazkaltzeko. Ehun lagun inguru batu ziren. Ondoren, bertso saioa eta ekitaldi politikoa izan zituzten. Presoen egoeraren berri eman zuen AAMko kide batek, eta haren ostean, hasi zen erromeria.

Ekitaldia **Ohorezko matrikulak**



Arreiture BHik diplomak banatuko ditu gaur, 19:00etan, Herriko Antzokian. Ekitaldi hori ZIGeko, Batxilergoko eta Zikloetako titulazioa lortu duten ikasle guztiei errekonozimendua adierazteko antolatutako jaia da, eta aurten bi gonbidatu ekarriko dituzte, euren esperientzien berri eman eta diplomak banatzeko: Zuhaitz Gurruxaga futbolari elgoibartarra eta Eñaut Elorrieta Ken7 musika taldeko abeslari gernikarra. Ekitaldi horretan aurten ohorezko matrikula lortu duten bost ikasle nabarmenduko dituzte: Alba Garcia, Nagore Alvarez, Rebeca Aizpiri eta Nora Landa-luze eta Sara Martinez (argazkian, Sara falta da).

Aipamen berezia merezi du, era berean, Elgoibarko gazteek unibertsitatera sartzeko hautaprobak lortu dituzten emaitzek. Arreiture institututik lehenengo deialdira aurkeztu ziren 60 ikasleetatik 59k gairatu dute aurten selektibitate.

Irudia **Reala, herriz herri**

Elgoibartik pasatu zen joan zen egunean Realeko autobusa. 18:00ak jotzeko minutu gutxiren faltan ailegatu zen Txankakua zubi pareraino, eta dozenaka realzale zituen han zain, igoera lortu duten jokalariek ikusteko demaseko ilusioarekin. Ikusi, baina, apenas ikusi zituzten. Batetik, autobusak tindatutako kristalak zituelako, eta, bestetik, segundo batzuetako geldialdia baino ez zelako izan.



Arnaldo Otegiren aldeko elkartasun argazkia bihar, zapatua, Plaza Handian

Arnaldo Otegi libre lagatzeko eskatzeko eta haren senideei babesa agertzeko, elkartasun argazkia aterako dute bihar, ekainaren 26an, Plaza Handian. Antolatzaileek ekimen horretan parte hartzera deitu dituzte herritar guztiak. Argazkia 12:00etan aterako dute, baina komenigarria da apur bat aurretik agertzea.

Mendaron 1957. urtean jaiotakoen kinto bazkaria, uztailaren 18an

1957. urtean jaiotako mendararren kinto bazkaria antolatu dute, uztailaren 18rako. Landa jatetxean egingo dute bazkari hori, eta interesatuek Leku-Ona tabernan eman behar dute izena, uztailaren 12a baino lehen. Informazio gehiago edo telefonoz izena eman nahi duenarentzat: 943 756 065 (Leo).

Angel Bazterretxea apaizaren omenezko meza, hilaren 4an, Mendaron

Angel Bazterretxea Mendaroko abadeak 50 urte bete ditu apaizgintzan, eta hori ospatzeko, meza berezia izango da hilaren 4an, 12:00etan, Mendaron, Garagartzako Sortzez Garbia elizan. Ur Bizia Pastoral Barutia osatzen duten Soraluze, Elgoibar eta Altzola parroketako apaiz, arduradun eta kristauak ere elizkizun horretan izango dira. Ospakizun horretan Mendaroko abesbatzak ere parte hartuko du.



maider salegi 12 urte

Desio bat?

Hannah Montanaren kontzertu batera joatea.

Bizitzeko leku bat? eta oporretan joateko?

Bizitzeko, Mendaro. Oporretan, berriz, normalean Andaluziara joaten gara, eta nik gustuko dut.

Zein jai dituzu gustukoen?

Santanak. Ez da aparteko ezer egoten, baina oso gustura ibiltzen naiz herriko jaietan lagunekin.

Alkate bazina zer ekarriko zenuke jaietara?

Barrakak. Badakit leku askorik ez dagoela, baina...

Zerk lotsarazten zaitu?

Etxeko zapatilekin kalera irteteak. Ez zait sekula gertatu, baina atzo ia-ia irten nintzen, nahi gabe.

Zure jateko gustukoena?

Makarroiak tomatearekin.

Nola adieraziko zenioke maite duzun horri maite duzula?

Ezkutuan esango nioke. Gelditzeko esan, eta biok bakarrik gauden momentu batean esango nioke.

Inoiz entzun duzun piroporik ederrena?

Gure artean ez dugu piropoak esateko joerarik. Esan beharko banu ere ez nuke jakingo zer esan.

Bukatu duzu ikasturtea. Irailean Elgoibarko Institutuan hasiko zara. Zerbaiten falta igarriko duzu?

Dena berria izango da han, eta apur bat kezkatzen nau horrek, baina hemen elkarrekin ibili garen guztiok joango gara bat izan ezik, eta alde horretatik ez dut asko igarriko.

Zer izan nahiko zenuke nagusitan?

Medikua, jendeari lagundu ahal izateko.

Zer falta du Mendarok?

Elgoibarren dituzten moduko igerilekuak-edo.

Nor eramango zenuke zurekin abentura batera?

Ezingo nuke pertsona bakarra aukeratu. Lagun guztiak estimatzen ditut, eta ez nuke nahi inor haserretzerik.

Zer gabe ez zara irteten etxetik?

Giltzik gabe.



Irteera

ONCE saria Elgoibarrera

Eneko Barruetabeña, Nerea Bastida eta Jon Agote Elgoibar Ikastolako ikasleek ONCE saria eskuratu berri dute, *Oztopoak egunero gainditzen ditugu* lehiaketan. Gipuzkoako 948 ikaslek parte hartu zuten ipuin solidario bati ize-na eta azala jartzeko lehiaketan, eta 254 lan aurkeztu zituzten.



Zelakoak dira estralurtarrak?

Asier Olabe 7 urte

Estralurtarik ez dago. Martzianoak, bai. Martzianoak txikiak dira, berdeak, eta antenak dituzte. Marrazkietan ikusi ditut. Ez dira oso txarrak, eta hona etorriko balira jolastuko nuke haiekin beharbada, baina ni ez noa hara.



Marek Brintda 7 urte

Handiak dira, eta Jupiterren bizi dira. Ez dakit onak edo txarrak diren, baina ni ez nintzateke joango, kohetea lehertu eta hil egin naitekeelako. Ni ikusi nahi banaute, etortzeko beraiek Mendatorra, eta keinuekin esango diet zer bait.



Unax Arrizabalaga 7 urte

Txikiak, oso txikiak, eta gu baino zatarragoak. Zeruko planeta batean bizi dira, eta marrazki bizidunetatik ezagutzen ditut nik. Nik uste dut ez direla oso onak, eta ez dut nahi hona etortzerik, baina etortzen badira kasu egingo diet, badaezpada.



Ane Txoperena 6 urte

Handiak dira eta itsusiak. Koloretakoak dira: moreak, berdeak eta urdinak, eta arropa diferenteak erabiltzen dituzte. Ez nuke nahi hona etortzerik, beldurtu egingo nintzatekeelako. Ez ditut ikusi, eta ez ditut ikusi nahi.



Maddi Vidal 6 urte

Txikiak dira eta lau hankatan ibiltzen dira, baina elastikoak direnez, bat batean hazi egiten dira, erraldoi egin arte. Begiak etengabe mugitzen dituzte, zoratuta baleude bezala. Lo daudela joango nintzateke zelakoak diren ikustera, baina bestela, ez.



Unai Sanchez 6 urte

Oso handiak dira, erraldoiak. Zeruan bizi dira, infernua bezalako herri batean, baina magikoak direnez, ez dira sutan erretzen! Nik uste dut ez direla oso onak, baina ez ditut sekula ikusi, eta ez dakit oso ondo.



Suaren gainetik salto eginez ospatu zuten herritar askok urteko gaurik magikoena

San Juan jaien harira, hainbat ekitaldi izango dira Altzolan asteburuan

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Elgoibarren eta Mendaron ere suaren inguruan ospatu zuten udako solstizioa, eguazte-
nean. Gauaren iluntasunean han-hemen ikusten ziren suak, baina zalantzarik gabe, ikusgarriena Altzolan egin zutena izan zen. Azke-
neko urteetako ohiturari eutsiz, Deba ibaian egin zuten altzolatarrak San Juan sua. Mendaron, berriz, Herriko Enparantzan bertan piz-
tu zuten su handia, baina haren aldamenean su txikiago bat ere egin zuten herriko gazteenek, saltoka aritzeko. Elgoibarren, berriz, Ubitar-
te Gain eta San Roke arteko bidean egiten ari diren obretan jardun zuten suaren inguruan saltoka herriko gazte eta helduagoek. Aurretik,
Atxutxiamaikakoek edabe magikoa banatu zuten Plaza Handian. Argazki gehiago eta bideoa www.elgoiBAREN.net atarian dituzue.



Su gainean ausart, Elgoibarren.




Erretzeko beldurrik gabe, Mendaron.



Altzolan, Deba ibaian egin zuten San Juan sua.



Herriko plazan egin zuten San Juan sua, Mendaron.



Atxutxiamaikakoek edabe magikoa banatu zuten Plazan.



Ubitarte Gain eta San Roke arteko bidean piztu zituzten suak.

Erretratu zaharra



1972

Juan Jose Reyk laga digu aste honetako erretratu zaharra. 1972. urtean Lerun futbol zelai zaharrean ateratakoa da. Urte horretan Mendaroko Kilimon futbol taldea txapeldunorde izan zen herriarteko txapelketan, eta partidu hartako hamaikakoa du-zue argazkikoa. Gogora ditzagun haien izenak: Goian, tente: Minguez atezaina, Txomin, Jorge Cebrian, Sorazu, Anton Zubiaure, Francisco San Gerons, Jose Luis Billale, eta Ignacio entrenatzailea. Behean, makurtuta: Mugertza, Emilio, Pedro Jose Mendikute, Garate eta Iparragirre.



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko
erretratu zaharrak
baldin badituzu,
eskertuko genizuke
gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea.
943 744 112 (Ainhoa)

B
BARREN

Uztailaren 2an hasiko da aire libreko zinema, 'Alicia en el país de las maravillas' filmarekin

Plaza Handian emango dituzte film guztiak, 22:30ean hasita

Aste honetan bertan jarri dute pantaila erraldoia Plaza Handian, eta datorren barixakuan hasiko da aire libreko zinemaldia. Tim Burtonen *Alicia en el país de las maravillas* pelikularekin hasiko dute aurtengo zikloa, eta uztailaren 31n amaituko da, *Que se mueran los feos* filmarekin. Udaleko Kultura Sailak hamar film emango ditu, eta denak 22:30ean hasiko dira.

Uztailak 2 <i>Alicia en el país de las maravillas</i>	Uztailak 10 <i>Spanish movie</i>	Uztailak 24 <i>Furia de titanes</i>	Uztailak 31 <i>Que se mueran los feos</i>
Uztailak 3 <i>Loca obsesión</i>	Uztailak 16 <i>Acantilado rojo</i>	Uztailak 25 <i>Oceanos</i>	
Uztailak 9 <i>500 días juntos</i>	Uztailak 17 <i>Los mundos de Coraline</i>	Uztailak 30 <i>El pequeño Nicolas</i>	



Zumaiako eta Zarauzko argazki rallyak irabazi ditu Omar Ulaziak



Omar Ulazia elgoibartarrak irabazi ditu Zumaiako eta Zarauzko argazki rallyak. Zumaiako Aste Berdean argazki bilduma onenaren saria eskuratu du, eta 250 euro eta garaikurra jaso ditu. Horrez gain, Zarauzko argazki rallyan ere bere erretratuak nabarmendu ditu epaimahaiak, 53 parte hartzailek aurkeztutako lanen artean. Iaz ere lehiaketa hori irabaztear egon zen, baina bigarren sariarekin konformatu behar izan zuen argazkilari elgoibartarrak. Ulaziaren argazki bilduma ekainaren 27ra arte egongo da ikusgai Zarauzko Torre Luzeako erakusketa gelan.

Gazteen eguneko egitaraua osatzeko deia egin dute

HARRO2 taldeak eta Gazte Asanbladak sanbartolomeetako gazteen egunerako egitaraua osatzen laguntzeko ekarpenak eskatu dituzte. Bihar izango da bilera, 11:00etan Madalako parkean. Herriko gazte guztiak daude gonbidatuta. Hala ere, bilerara joaterik ez dutenek gaztiokharro2@gmail.com helbidera bidali ditzakete proposamenak.

Astelehenean hasiko dira San Pedro jaiak Idorriben

Datorren astelehenean, ekainaren 28an, hasiko dira San Pedro jaiak Idorriben auzoan. Txapligoak eta kanpai hotsak hasiko ditu jaiak 19:00etan, eta gauean afaria egingo dute. Ekainaren 29an, San Pedro egunean, meza, trikitalariak, eta pilota partidak izango dira, besteak beste. Ekitaldi gehienak uztailaren 2tik 4ra egingo dituzte, eta berrikuntzarik handiena motoen topaketa izango da. (Egitarau guztia agendan).

‘Ellas bailan solas’ kale antzerkia izango da gaur Madalako parkean

Ikuskizuna 20:00etan hasiko da

Pikor teatroak *Ellas bailan solas* kale antzerkia eskainiko du gaur, Madalako parkean. Zahar etxetik ihes egin duten adineko bi emakume dira protagonistak. Itxuraz ahulak dirudite, baina, doazen lekura doazela, nahasmena sortzen dute. Bakarrik egiten dute dantza, itsasoa ikusi nahi dute eta arriskuak izan daitezke. Zahar-etxeke arduradunek hiri guzitik jarri dituzten kartekek diotenaren arabera, hobe da haiei kontra ez egitea. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da.



Hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar

Hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar, ekainak 26. El-goibarko baserritarrek euren produktuak jarriko dituzte salgai Nafarroa Plazan, 9:00etatik aurrera, eta ganadudunek abereak jarriko dituzte ikusgai Plaza Txikian. Horrez gain, Gipuzkoako hainbat herritako lore saltzaileak etorriko dira. Bestalde, Sanlo elkartekoek errusiar entsalada, patata tortilla eta Gernikako piper pintxoak banatuko dituzte. Hilero bezala, kale kantarien saioa ere izango da, 12:00etan hasita. Kale kantariekin abesteko interesa dutenek gaur arratsaldean ager daitezke Kultur Etxeko sotoan, 19:00etan.



Altzolako San Juan jaietan egongo da Kiribil gaur, eta ondoren oporrak hartuko ditu



Gaur arratsaldean Altzolako San Juan jaietan ibiliko da Kiribil, 16:30etik aurrera, eta ondoren oporrak hartuko ditu. Apirilaren 16an hasi zen aurtengo Kiribilka egitasmoa, eta orduetik, zortzi saio egin dituzte. Kiribil barraskilo erraldoia lau kiribiltxorekin ibili da saio horietan, eta Elgoibarko Izarrako arduradunek emandako datuen arabera, 150 haur inguru ibili dira batezbeste saioetan, baina batzuetan 200 izatera ere iritsi dira. Kiribilka egitasmoaren helburua 2 eta 6 urte bitarteko umeek euskararekiko jarrera positiboak hartzea eta euskal giroa sustatzea da. Antolatzaileak pozik agertu dira herritarren parte-hartzearekin, nahiz eta gurasoen partaidetza ez den izan eurek nahi bestekoa. Bestalde, barkamena eskatu nahi dute eguraldiaren ondorioz azken bi saioak bertan behera geratu direlako. Irailaren 10ean itzuliko dira, eta bi saio horiek orduan egitea da antolatzaileen nahia.

Egur arte tailerraren erakusketa hilaren 4ra arte

Egur arte tailerreko ikasleek urtean zehar egindako lanen erakusketa uztaillaren 4ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Astelehenetik zapatara 19:00etatik 21:00etara bitartean bisitatu daiteke erakusketa.

Tempestades eta Etxiok Potroik taldeen kontzertua

Tempestades eta Etxiok Potroik taldeek kontzertua eskainiko dute uztaillaren 2an, Mendaroko gazte-txean. Etxiok Potroik taldea lau mendarotarrek osatzen dute: Borja Rodriguez, Andoni Zulaika, Ibai Idoeta, eta Enekoitz Zubiaurre. Gaur zortzi izango da haien estreinako kontzertua. Ikuskizuna 22:30ean hasiko da.

Euriak eta hotzak inoizko gogorrena egin dute aurten Quebrantahuesos martxa

“Infernua” bizi izan zuten txirrindulariek bizikleta gainean



Ezkerreko argazkian, Koro Gabiola, eta eskuinekoan, Ainhoa Lendinez.

Berez da gogorra, baina aurten are gogorragoa izan da Quebrantahuesos proba [205 kilometro, 3.700 metroko desnibela]. Somport, Marie Blanque edo Portalet mendateetan “infernua” bizi izan dutela adierazi du Koro Gabiolak bere blogean, esate baterako (<http://www.itxaspe.com/BlogsDeportes>). Gogotik egin zuen euria, eta hotza, sekulako hotza jasan behar izan zuten txirrindulariek. Ondorioz, jende asko jaitsi zen bizikletatik. Elgoibarko hemezortzi lagunek zuten izena emanda, baina hamahiru besterik ez ziren ailegatu helmugara, tartean bi emakume: Ainhoa Lendinez eta Koro Gabiola. Treparriscos egin zutenek [90 kilometro eta 965 metroko desnibela] eguraldi hobea izan zuten. Aldameneko zutabeen daukazue Quebrantahuesos amaitu zuten elgoibartarren zerrenda.

Sailkapenak

QUEBRANTAHUESOS

Izena emanda gehigo zeuden arren, hamahiru elgoibartarrek amaitu zuten zapatuan Quebrantahuesos zikloturisten proba entzutetsua.

252 Andoni Ortega Agote	(6:38:13)
492 Gorka Zabala Zabaleta	(6:52:01)
536 Ibon Gabilondo Altuna	(6:54:21)
940 Unai Narbaiza Gantxegi	(7:11:54)
2.032 Javier San Andres Toledano	(7:49:49)
2.033 Javier Torquemada Quintas	(7:49:50)
2.044 Alberto Mugica Arkarazo	(7:50:08)
2.780 Koro Gabiola Colina	(8:18:55)
2.781 Iñaki Iraola Moyano	(8:18:56)
3.894 Ainhoa Lendinez Garate	(9:05:43)
4.035 Aitor Romera Irizar	(9:17:37)
4.036 Alex Galarraga	(9:17:37)
4.269 Mikel Gabilondo Aizpitarte	(9:31:49)

Iñigo Lariz eta Haritz Arrieta, lehenengo hogeiren artean, Txindokiko Kilometro Bertikalean

Txindokiko Kilometro Bertikala jokatu zen zapatuan, eta bi elgoibartarrek parte hartu zuten han: Iñigo Larizek eta Haritz Arrietak. Guztira, 184 lagunek parte hartu zuten, eta Didier Zago frantziarra gailendu zen 34:33ko denborarekin. Antxitxikariek 3,84 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eta 943 metroko desnibela gainditu behar izan zuten. Elgoibartarrak ere txukun aritu ziren. Iñigo Larizek hamabosgarren amaitu zuen proba (39:49), eta Haritz Arrietak, berriz, hamazortzigarren (39:59).

Gaur, Hiru Handiak

Asteburuan Hiru Handiak iraupen luzeko mendi martxa jokatu da, eta Elgoibarko eta Mendaroko ordezkariak ere izango dira. Gaur gauerdian irtengo dira parte hartzaileak Gopegitik eta 24 ordu izango dituzte ehun kilometro-



Iñigo Lariz, Edu Uribe eta Haritz Arrieta, Anbotoko Kilometro Bertikala jokatu zen egunean.

ko ibilbidea osatzeko. Gorbea (1.482 m), Anboto (1.331 m) eta Aizkorri (1.528 m) lotuko dituzte mendizaleek oinez nahiz korrika.

Gotzon Zulaika bigarren, Orozkoko mendi lasterketan

Mendi lasterketen Euskadiko Txapelketako bigarren proba jokatu zen joan zen domekan Orozkon, eta Gotzon Zulaika mendararra bigarren sailkatu zen 23 urtez azpikoen artean, 1:03:07ko denbora eginda. Algortatik irten eta Orozkoko plazara iristeko, hamabost kilometro inguruko ibilbidea osatu zuten 23 urtez azpiko antxitxikariek, eta Burtotza mendi taldeko Gaizka Fernandezek irabazi zuen.

Lau dira guztira Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarriak, eta hurrengoia Zumaiaiko Flyshean jokatu dute, uztailaren 11n. Azkena, berriz, irailaren 25ean jokatu da: Olazagutia-Urbasako mendi lasterketa.

Jendetza handia batu zen barixakuan Plaza Handian, Lagunak Pilota Eskolako finalak ikusteko

Barixakuan bukatu zen Lagunak Pilota Txapelketa, eta sekulako ikusmina sortu zen finalen inguruan. Lagunak Pilota Eskolak antolatzen du urtero txapelketa hau, eta aurtengoa hogeigarren edizioa izan da. Aurrekoetan moduan, aurten ere parte-hartze handia izan da, eta guztira, 73 pilotari lehiatu dira, txapelketa bera osasuntsu dagoen adierazle.

Hauek izan ziren barixakuan jokatu ziren partidetakoko emaitzak:

- Urko Iriondo **18** – Paul Fernandez **17** (Lehen urteko benjaminak)
- Ion Beristain **18** – Mikel Astigarraga **10** (Bigarren urteko benjaminak)
- Iker Odria **18** – Ion Urruzola **4** (alebinak)
- Iker Calvo **18** – Mikel Agirrebeña **15** (infantilak).



Gaur jokatu da Nahaste Borraste proba, 19:00etatik aurrera



Gaur 19:00etatik aurrera jokatu da Nahaste Borraste proba, eta interesatuek denbora dute oraindik izena emateko. Izan ere, antolatzailleek jakinarazi dute 17:00etatik 19:00ak arte izenak hartzen egongo direla Kimetz elkartean. Partaideek hiru kirol modalitatetan hartu beharko dute parte. Hasteko, zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan, eta ondoren, Plaza Handian 25 kiloko zaku bizkarrean hartu eta 400 metro egingo dituzte harekin. Azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute korrika. Aurreko aldietan, herritar ugari parte hartu dute proba honetan, eta errekorra David Condek ezarri zuen iaz: 18 minutu eta 25 segundo.

Mikel Iturria andoaindarrak irabazi zuen domekan Mendaroko lasterketa



Jabier Ezenaroren Oroimenezko Lasterketa jokatu zen domekan Mendaron, eta Mikel Iturria (Andoaingo) nagusitu zen sprintean (2:16:08). Iturriak berak eskuratu zuen mendiko saria ere. Iturriaren atzetik, Unai Artola (Caja Rural) eta Mikel Aristi (Sumofic) izan ziren helmugaratzen hurrenak. Taldeka, berriz, Caja Rural gailendu zen. Proba amaitu ostean, errifen zozketa egin zuten antolatzailleek, eta hauek izan ziren zenbaki saridunak: 1.729 eta 347 (ordezkoa). Goiko argazkian irabazleak, Iruñe Berasaluze Mendaroko alkatearekin eta Ander Zulaika Mendaroko Txirrindulari Elkarteko presidentarekin.

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. Interna bezala edo orduka. ☎ **628 014 327**
- Gizona lanerako prest. Margolari, igeltsero laguntzaile edo elektrikari lanak egingo nituzke. ☎ **606 612 834 (Raul)**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ **671 476 869**
- Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko presti. ☎ **686 234 612**
- Emakumea arropak lisatzeko prest. ☎ **943 531 103 (20:00etatik aurrera)**
- Gizonezkoa gidari lanak egiteko prest. ☎ **650 538 274**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ **647 065 746**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ **669 311 385**
- Emakumea abuztuan lan egiteko prest. ☎ **606 169 667**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, astean zehar edo asteburuetan, interna bezala edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Neska, ikaslea, umeak zaintzeko prest. Ekainean, uztailean eta abuztuan. ☎ **630 700 272**
- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: tabernak, portalak... ☎ **663 786 976**

ESKAINZA

- Zerbitzaria behar da. ☎ **943 741 600**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Erdigunean. Prezio onean. ☎ **941 341 437 / 676 882 373 (Esther)**
- Etxea salgai Mendaron. Mendarozabal plazan. Hiru logela, egongela, sukialdea eta bainugela. ☎ **943 033 493**
- Etxea alokatzen dut Gasteizen, ikasleentzako. Bi logela, sukialdea, egongela eta komuna. Berritua, erdigunean. ☎ **689 789 743 / 943 741 898**
- Etxea salgai Elgoibarren, erdigunean. Berritua, eguzkitsua, altzariekin, igogailua eta ganbareekin. 38 milioi pezeta. ☎ **652 727 631**
- Pisia salgai Pedro Muguruza etorbidean. Berritua, altzariekin. Ganbara eta garajea ditu. ☎ **678 883 051 / 943 742 808 (gauze)**
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **606 169 667**

GARAJEAK

- Garajea salgai edo alokairuan Jausoron (Plaza Handitik gertu). 17m2. Motoa gordetzeko edo trasteleku modura erabiltzeko egokia. Merke. ☎ **669 022 573 / 943 740 146**

- Garaje itxia alokatzen dut udaletxe aldamenean. ☎ **628 764 686**
- Autoa edo furgoneta sartzeko moduko garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. Merke. ☎ **646 966 198**
- Garajea salgai Urasandiko Anayak edifikioan. ☎ **620 856 768**
- Garaje itxia salgai Jausoron. ☎ **652 727 631**

BESTELAKOAK

- Denda karroa salgai. Oso egoera onean. 500 euro. ☎ **680 706 114**
- Bi zintzilikario dituen katea galdu dut. Balio sentimental handia dauka. Saritu egingo da. ☎ **656 309 677**
- Haurarentzako sehaska behar dut. ☎ **657 083 020 / 943 530 644**
- AC/DC taldeak ekainaren 28an Bilbon emango duen kontzerturako sarrerak saltzen ditut. ☎ **671 841 563**
- Perikito bat aurkitu dut. ☎ **680 696 403**

PARTIKULARRAK

- Klase partikularrak emango nituzke uztailean. Goizez. ☎ **688 664 727**
- DBHko gaztelania eta matematika eskolak emango nituzke ekainean eta uztailean. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

■ ZORIONAK ZURI

OSPAKIZUNAK



Eskerrik asko, **Aitor eta Jorge**, egindako harreragatik. Ez ahaztu herriaz eta jarraitu BARREN irakurtzen.



• Zorionak, **Maddi sorgintxo**, eta muxu pila bat bihar zure bigarren urtebetetze eguna delako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Iraitz**, gure futbolista, 5 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki, Oihan eta Elene anai-arreben partez.



• Zorionak, **Nora**, astelehenean 3 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eta patxo handi bat, bereziki, Jon eta Marenen partez.



• Zorionak, **aittitta**, bihar zure urtebetetzea delako. Familiakoen, eta bereziki Lara eta Danelen partez.



• Zorionak, **Julen**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Oier eta Iharten partez.



• Zorionak, **Irene**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Leireren partez.



• Zorionak, **Eñaut**, igandean 10 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **printzesa**, hilaren 2an 5 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa lker, Beñat, Ariane eta Rosaren partez.



• Zorionak, **txapeldun**, zure bosgarren urtebetetzean, guztien partez.



• Zorionak, **Unai**, asteartean urtebete egingo duzulako. Etxekoen, eta bereziki, Nagore eta Juneren partez.



• Zorionak, **Gorane**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Ikerren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Gaizka**, zure zortzigarren urtebetetzean. Familiakoen partez. Segi horrela, *tanborrero!*



• Zorionak, **Aimar eta Malen**, zuen bigarren urtebetetzea. Aitaxoren eta amatxoren partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Gorane eta Amanda**, 3 eta 7 urte beteko dituzuelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Oihana eta Ane**, 3 eta 6 urte egin dituzuelako. Familiakoen partez.

OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA



Zorionak, **Gaizka eta Maddi**, zuen laguneren partez.



• Zorionak, **Elene**, astelehenean 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Josebaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriendu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen,
edobarren@elgoibarkoizarra.com
 e-postara bidali.

OKINDEGIA

27 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 25 Fernandez
- 26 Yudego
- 27 Yudego
- 28 Fernandez
- 29 Yudego
- 30 Zabaleta
- 1 Etxeberria (*Errosario*)
- 2 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



25 barixakua

Lehiaketa

11:30 Pintxo lehiaketa
22:00ak arte egongo da
pintxoak dastatzeko aukera.

Kirola

19:00 Nahaste Borraste
Kimetz elkarteak antolatuta,
Plaza Handian.

Musika

19:00 Kale kantarien
entsegua
Kultur Etxeko sotoan.

Ikasturte amaiera

19:00 Diploma banaketa
Elgoibar BH Institutuko
ikasleek ikasturte amaierako
diploma jasoko dute. Herriko
Antzokian.

Antzerkia

20:00 'Elas bailan solas'
Madalako parkean.

26 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Elgoibarko baserrietako pro-
duktuak, abereak, txosna eta
lore saltzaileak izango dira, Na-
farroa Plazan. Eguerdian, kale
kantariak irtengo dira.

Bilera

11:00 Gazteen egunerako
bilera irekia
HARRO2k eta Gazte Asanbla-
dak deituta, sanbartolomeeta-
ko gazteen egunerako egita-
raua prestatzeko bilera. Mada-
lako parkean.

Argazkia

12:00 Politika askatu,
Arnaldo askatu plataformaren
argazkia
Herriko elkarte eta herritarrak
gonbidatu dituzte argazkirako.
Plaza Handian.

Ikasketa Zentroa

→ **INGELESA**
Ikastaro trinkoak.
Adin eta maila guztiak.

→ **ESKOLA-LAGUNTZAK**
Ikasgai guztiak.

MATRIKULA IREKITA

San Bartolome 25, behea - Tel.: 652 763 264 / 696 295 098

**SAN JUANAK
ALTZOLAN**

25 BARIXAKUA

- 11:00 Umeentzako
tailerrak
- 13:00 Euskal karaokea
- 14:30 Herri bazkaria
- 16:30 Kiribil
- 18:00 Zezentxoak eta
poniak
- 19:30 Txokolate jana
- 22:00 dantzaldia

26 ZAPATUA

- 15:30 Mus txapelketa
- 17:00 Zezentxoak eta
poniak
- 18:00 Xake txapelketa
- 19:30 Parrila jana
- 21:00 Dardo txapelketa
- 22:30 Dantzaldia
- 03:00 Txokolate jana

27 DOMEKA

- 12:00 Auto telegidatuen
erakustaldia
- 16:30 Betiko jolasak
- 18:00 Zezentxoak eta
poniak
- 19:00 Poker txapelketa



LUDOTEKAKO EKINTZAK

**Uztailaren 2an,
9an eta 16an**

**LUDOTEKA
ZERBITZUA
MINTXETAN!**

**5-12 urtekoentzat,
15:30etik 17:30era**

GAZTELEKUKO EKINTZAK

**UDAKO ORDUTEGI
BERRIA:**

19:00etatik 21:00etara

**EKINTZA BEREZIEN
ORDUTEGIA KONTSULTATU**



SAN PEDRO JAIK IDOTORBEN

28 ASTELEHENA

19:00 Kanpai jotzea eta txapliguak jaurtitzea
21:00 Auzotarren afaria

29 MARTITZENA

11:00 Meza nagusia
Ondoren, hamaiketakoa
13:00 Lagunak elkarrekin antolatutako pilota partida
14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria
Egunean zehar, Ion Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariak

2 BARIXAKUA

21:00 Lagunarteko afaria
23:00 Mus txapelketa

3 ZAPATUA

10:00 Gisatu dastaketa
10:30 Idotorbeko motor topaketa
11:00 Salda eta txorizoa
12:00 Motorzaleen irteera
14:00 Motorzaleen bazkaria
16:30 Umeentzako Molto topaketa eta opariak
18:00 Gizon proba
23:00 Gaupasa, Imuntzo eta Belokirekin
00:00 Bolo txapelketa
Goizaldean, txokolate jana

4 DOMEKA

10:30 Meza
Ondoren, txalaparta Ttakun bikotearekin
12:00 Euskal dantzak, Eztei taldearekin
13:00 Goikoetxe eta Eizmendi harri jasotzaileen erakustaldia
17:30 Idi demak



ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I 2010/2011 IKASTURTEA



Elgoibar Arreiturre B.H.I.

Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 013431aa@hezkuntza.net

www.elgoibarbhi.net

DBH
eta
Batxilerra



MATRIKULAZIO DATAK:
Uztailaren 1etik 6ra



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA
ETA IKASLEEN ELKARTEA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIBERSITARIOA Y DEPORTES

txatxaran



ĩnakigarate

Gazte Informazio Bulegoko teknikaria

Apirilean hartu zuen Iñaki Garate zarautzarrak Gazte Informazio Bulegoaren ardura, eta gazteentzako “informazio interesgarria” zabaltzea da bere egitekoa. Urte osorako, baina batez ere udarako informazio erabilgarri asko eskuratu daiteke informazio bulegoan, eta gazte guztiak animatu nahi ditu Iñakik zerbitzu hori erabiltzera.

“Informazioa behar duten gazteak lasai etor daitezela bulegora”

Zarautzar bat Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoan. Nolako herria da Elgoibar?

Zarautz baino txikiagoa da, eta denak elkar ezagutzen dute. Elkarrekin eta herritarren artean konfiantza handia dago, eta errazagoa da komunikatzea. Nire lanerako hori positiboa da. Informazioa banatzea errazagoa da herri txikietan, handietan baino.

Eta, nolakoak dira Elgoibarko gazteak?

Hiru hilabete bakarrik daramatzat hemen, eta horrekin ideia txiki bat soilik egin dezaket, baina ikusi dudaren arabera, gazteak mugitzen dira Elgoibarren. Gaztelekuaren eta gazte lokalen inguruan mugimendu handia dago. HARRO2k ere sekulako harrera izan du, eta ni neu ere harrিতuta geratu nintzen aurkezpen ekitaldian bildu zen jendetzarekin. Gazteek antolatzen dituzte ekintzak, eta euren aldarrikapenak egiten dituzte.

Eta, gazte horiek erabiltzen dute Gazte Informazio Bulegoa?

Gazte askok ez dute ezagutzen Gazte Informazio Bulegoa, eta pena da. Gazteentzako oso zerbitzu interesgarria da, eta informazio asko eskuratu dezakete hemen. Kultur Etxeko bigarren solairuan gaude, eta apur bat ezkutuan geratzen gara. Hori batzuenzat oztopoa izan daiteke.

Zer aurkitu daiteke, bada, Gazte Informazio Bulegoan?

Gazteentzako informazioa, laguntza eta aholkularitza guztia eskuratu daiteke: lan eskaintzak, beka, etxebizitza bat alokatzeko

beharrezko informazioa, ikasketa aukerak, lehiaketak, bidaiak, aterpekin edo gazte eta irakasle txartelak tramitatzea, Inter-Railari buruzko informazioa, begirale titulua nola atera daitekeen, udalekuetako eskaintza... denetarik! Gazteekin zerikusia duen informazio guztia. 13 urtetik gorakoentzako zerbitzua eskaintzen dugu.

Udara begira, oporrek prestatzeko zerbitzu berezirik eskainiko duzue?

Oporretan joateko informazio asko daukagu. Lonley Planet bidai liburuxkak ditugu, Inter Railari buruzko informazioa, edo hegaldi merkeei buruzkoa. Udalekuei buruzko informazioa ere tramitatu dugu: auzolandegiak, atzerria joateko aukerak...

Malagan izan zara Gazte Informatzaileen Bilkuran. Nolako esperientzia izan da?

Oso ona. Gipuzkoako beste bi bulegotako informatzaileekin joan nintzen, eta porentzia bat eman genuen, sare sozialak gazte bulegoetan nola erabili daitezkeen azaltzeko. Oso aberasgarria izan zen. Guk Tuenti eta Facebook erabiltzen ditugu, eta informazio asko ematen dugu sare sozialen bitartez. Tuentin 160 lagun ditugu dagoeneko.

Nola animatuko zenituzke herriko gazteak Gazte Informazio Bulegora joateko?

Informazioa behar duten gazteak lasai etor daitezela bulegora. Ahal dugun heinean laguntzen saiatuko gara, eta uste dutena baino askoz gauza gehiago aurkituko dute hemen.

BULEGO ORDUTEGIA:

UZTAILEAN:
9:00-14:00

URTEAN ZEHAR:
Asteleheneetik ostiralera:
16:00-19:00
Astelehen, asteazken eta ostiraletan:
11:00-13:00

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



KEBAB TXOHAN JATETXEA



Janari azkar eta zapoetsua

Auheratu pikantearekin nahiz pikanterik gabe!

Plater konbinatuak eta menuak ere baditugu.

✓ **Dohram**



✓ **Lahmacun**



✓ **Kebab**



✓ **Patatak,
Entsaladak,**



San Frantzisko, 58 behea • ELGOIBAR
Tel.: 688 634 356



Eramateko eskaera egin dezakegu!

MINTXETAKO TABERNAK

Uda ona opa dizue!

Urtero bezala bi tabernak zabalik ditugu.



Probatu itzazu gure

- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- HANBURGESAK
- RAZIOAK
- PINTXO MORUNOAK
- ...

**Ospatu
ezazu zure
urtebetetzea
Mintxetan**

Tel.: 943 748 744